



Ebazpena, 2025eko abuztuaren 12koa, Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartatzeko eta Administrazioa berritzeko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita Lanbide-Euskal Enplegua Zerbitzu Publikoaren gaitutako erakundeak inskribatzea.

2023ko ekainaren 30ean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 91/2023 Dekretua, 2023ko ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.

Dekretu horretako 79. Artikuluak honako hau ezartzen du:

1. Oro har edo berariaz, Administrazioak pertsona fisikoak edo juridikoak gaitu ahal izango ditu; horretarako, pertsona horiei baimena emango die interesdunen ordezkari gisa zenbait transakzio elektronikoko egiteko.

Egoitza elektronikoa argitaratuko da zer izapide elektronikoko egin daitekeen ordezkaritza horren bidez.

2. Gaikuntza hori herritarrei arreta emateko eskumena duen administrazio-organismoaren titularrak emandako ebazpenaren edo formalizatutako hitzarmenaren bidez egingo da.
3. Gaikuntzan honako hau zehaztu beharko da:
 - a) Gaitutako pertsonak.
 - b) Gaikuntzaren xede diren prozedurak eta izapideak eta aplikatu behar diren arauak.
 - c) Aplikatu behar diren baldintzak eta betebeharrak.
4. Pertsona gaituek jarduketa bakoitzerako behar den ordezkaritza izan beharko dute. Administrazioak ordezkaritza egiaztatze eskatu ahal izango du noiznahi, eta Administrazioak onartutako dokumentu normalizatuen bidez emandakoa izango da baliozkoa. Ordezkaritza nahikorik ez badago, behar diren erantzukizunak eskatuko dira.

2025eko uztailaren 31an, Lanbide-Euskal Enplegua Zerbitzu Publikoak eskaera justifikatua aurkeztu zion Herritarrak Hartatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzari, ebazpen honen xede den erakundeei gaikuntza eman ziezaien. Horregatik, ebazpen hau ematen da, behar den moduan eta epean.

Aurrekoa betetzeko, eta Gobernantza, Administrazio Digital Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren eskumenetan oinarrituta, honako hau



EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Xedea.

Ebazpen honen I. eranskinean aipatzen diren erakundeak gaitzea, bertan aipatzen diren prozedura eta izapideetan, interesdunen ordezkari gisa transakzio elektronikoak egiteko.

Zehazki, “Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria”, “Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskatzea” eta “Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskatzaileen zerrenda” izeneko prozedurei dagozkien gaikuntzak formalizatzen dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta aipatutako erakundeek sinatutako hitzarmenetan adierazitakoaren arabera, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioekin lotutako prozeduretan interesa duten pertsonen izenean eta kontura transakzio elektronikoak egiteko erakunde gaitu gisa jarduteko.

Bigarrena.- Baldintzak eta betebeharrak.

Ebazpen honen eranskinean ageri diren erakunde gaituei aplikatu beharreko honako baldintzak eta betebeharrak onartzea:

- a) Gaitutako erakundearen ordezkariaren eta betebeharren egiaztapena.
- b) Gaitutako pertsonak jarduketa bakoitzerako behar den ordezkari izan beharko dute. Administrazioak edozein unetan eskatu ahal izango du egiaztapena, eta baliozkoa izango da Administrazioak onartutako dokumentu normalizatuen bidez emandakoa. Ordezkari izan ez bada, dagozkion erantzukizunak eskatuko dira.

- c) Izena ematea.

Baimendutako funtzionarioek Ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatuko dute gaitutako erakundea, eta ordezkari gisa jardun dezakeen izapideak eta prozedurak erregistratuko dituzte.

- c) Indarraldia.

Gaikuntzak gehienez ere hiru hilabeteko indarraldia izango du, ebazpena ematen den egunetik aurrera. Behin bakarrik luza daiteke, baina gehienez ere hiru hilabetez.

- d) Ezerezteak.

Herritarrei arreta emateko unitate arduradunak ofizioz ezeztatuko ditu gaikuntzak honako kasu hauetan:

- Gaitutako pertsonaren heriotza, gertaera hori jasota.
- Gaitutako erakundearen nortasuna iraungitzea, gertaera hori jasota.
- Gaikuntzen indarraldiari edo baliozkotasunari buruzko zalantza oinarritutako badaude.
- Gaikuntzaren eraginkortasunik eza ekar dezaketen beste inguruabar batzuk.

Ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatutako gaikuntzak kasu hauetan ezereztuko dira:

- Indarraldia amaitzen denean.
 - Zehaztutako gehieneko baliozkotasuna igarotzen denean.
- e) Datuen babesa.

Erakunde gaituak konpromisoa hartzen du datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudia betetzeko.

Hirugarrena.- Argitalpena.

Ebazpen honen edukia argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taula elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>

Laugarrena.- Errekurtsoak.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari edo Administrazio Digitaleko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

Sabino San Vicente Álvarez

HERRITARRAK HARTZEKO ETA ADMINISTRAZIOA BERRITZEKO ZUZENDARIA
(Elektronikoki sinatua)

I. ERANSKINA

Sozietatearen izena	Identifikazio-zenbakia	Prozedurak
Fundación Secretariado Gitano (Araba)	G83117374	Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria (EPO) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eskatzea Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskatzaileen zerrenda (BGD)
Gaztaroa Sartu Koop. Elk. De Iniciativa Social (Bizkaia)	F48211080	Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria (EPO) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eskatzea Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskatzaileen zerrenda (BGD)
Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. De Trabajo Asociado e Iniciativa Social (Gipuzkoa)	F48487748	Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria (EPO) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eskatzea Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskatzaileen zerrenda (BGD)